

EUSKOTRENEK, OTSAILAREN 29AN, EGUNEKO ETA GAUEKO ZERBITZUA INDARTUKO DU DURANGOKO '40 MINUTU ROCK' JAIALDIA DELA ETA

Larunbatean, otsailaren 29an, Euskotrenek eguneko eta gaueko zerbitzua indartuko du Durango – Matiko tartean '40 Minutu Rock' Jaialdia dela eta.

Otsailaren 29ko goizean, larunbatetako ohiko zerbitzua osatuko duten zenbait zerbitzu berezi eskainiko dira. Tren berezi hauek Matikotik Durangora 10:32an, 11:32an eta 12:32an irtengo dira eta baita Zaldibarretik Durangora 11:42an, 12:42an eta 13:42an.

Era berean, otsailaren 29tik martxoaren 1erako gauean, gaueko ohiko zerbitzua (ordu birik behin) tren bereziekin indartuko da. Durangotik trenak Matikora 30 minuturik behin irtengo dira gauaren zati handi batean. Matikotik Durangora eta Euskotreneko gainerako lineetan, zerbitzua larunbat gaueko ohikoa izango da.

Informazio gehiago behar duten erabiltzaileek Euskotrenen honako telefono zenbaki honetara dei dezakete 944 333 333. Horrez gain, informazioa jaso dezakete Euskotreneko langileekin zerbitzatutako geltokietan eta geralekuetan, Euskotreneko APP ofizialean, konpainiaren www.euskotren.eus web gunean eta [@euskotrenEJGV](https://twitter.com/euskotrenEJGV) twitter gunean.

Igorpen data: osteguna, 2020ko otsailaren 27a